SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2024/08/01

SINATZAILEA
Berako kontu-hartzailea
MARIA DOLORES OYARZABAL ZUBIETA
2024/08/01

SINATZAILEA
Berako Udaleko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2024/08/01



# KONTRATAZIO MAHAIKO AKTA

Tokia: Berako Herriko Etxea.
Eguna: 2024-07-31.
Ordua: 14:30.
Kontratuaren xedea: Berako kiroldegian autokontsumo kolektiborako instalazio fotovoltaikoaren hornidura eta muntaketa.

Prozedura: publizitate komunitariorik gabeko prozedura irekia.

Hasierako prezioa: 83.274,30 euro (BEZa kanpo).

3_2 zenbakiko Mahaia: "C" gisa izendatutako kartazalen dokumentazioa.

BERTARATUAK:
Presidentea: Aitor Elexpuru Egaña, alkatea.
Mahaikideak: M. Dolores Oyarzabal Zubieta, kontu-hartzailea; Miguel J. Belarra Tellechea, idazkaria.

2024ko uztailaren 22an bildu zen Kontratazio Mahaia formula objektiboen bitartez zenbatzeko irizpideekin baloratzeko agiriak (eskaintza ekonomikoa; berme epearen luzatzea; gauzatzeko epea laburtzea; irizpide sozialak) NLEPren bidez irekitzeko eta honako hau erabaki zen:

1. Bost egun naturaleko epea ematea zuzen daitezkeen akatsak zituzten enpresei (Elecnor Servicios y Proyectos SAU, Energías Fotovoltaicas de Navarra SL (FOTONA), Leycolan SAL, ASP Energía Solar Fotovoltaica 2021 SL, Telman SL, Rios Renovables SLU eta Ekilor Energías Renovables SL) haiek zuzentzeko, eta hala egin ezean, proposamenari 0 puntu esleituko zaizkiola ohartaraztea.

# ACTA DE LA MESA DE CONTRATACIÓN

Lugar: Casa Consistorial de Bera.
Día: 31-07-2024.
Hora: 14:30 h.
Objeto del contrato: suministros y montaje de instalación fotovoltaica para autoconsumo colectivo en el polideportivo de Bera.

Procedimiento: abierto, sin publicidad comunitaria.

Precio base: 83.274,30 € (IVA excluido).

Mesa nº 3_2: documentación sobres "C".

ASISTENTES:
Presidente: Aitor Elexpuru Egaña, alcalde.

Vocales: Mª Dolores Oyarzabal Zubieta, interventora; Miguel J. Belarra Tellechea, secretario.

En la reunión que la Mesa celebró el día 22 de julio de 2024 se procedió a la apertura, a través de PLENA, de la documentación para valorar según criterios cuantificables mediante fórmula objetiva (oferta económica; ampliación del plazo de garantía; reducción del plazo de ejecución; criterios sociales) y se acordó:

1.- Conceder un plazo de 5 días naturales a las empresas que habían incurrido en defectos subsanables (Elecnor Servicios y Proyectos, S.A.U., Energías Fotovoltaicas de Navarra, S.L. (FOTONA), Leycolan, S.A.L., ASP Energía Solar Fotovoltaica 2021, S.L., Telman, S.L., Rios Renovables, S.L.U. y Ekilor Energías Renovables, S.L.) para su corrección, advirtiéndoles que en caso contrario se asignarán 0 puntos a la proposición.

SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2024/08/01
SINATZAILEA
Berako kontu-hartzailea
MARIA DOLORES OYARZABAL ZUBIETA
2024/08/01
SINATZAILEA
Berako Udaleko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2024/08/01

2. Bost egun naturaleko epea ematea eskaintza ekonomiko anormalki baxua aurkeztu zuten enpresei (Eseki SAL, Energías Fotovoltaicas de Navarra SL (FOTONA), Rios Renovables SLU eta Ekilor Energías Renovables SL) beraien eskaintzaren bideragarritasuna justifika zezaten, Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 98. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Eskaintza ekonomiko anormalki baxuen puntutik hasita, 4 enpresek aurkeztutako justifikazioaren berri eman du idazkariak, eta Mahaiak nahikotzat jo du, Ainhoa Lanz Ortegok (NAFARKOOP ENERGIA, GIZARTE-EKIMENEKO SOZIETATE KOOPERATIBOA) egin duen txosten teknikoan oinarrituta.

Formazko akatsak zuzentzeari dagokionez (eskaintza ekonomikoari eragiten diote kasu guztietan), baldintza-agiri arautzaileak horri buruz ezartzen duena irakurri dute:

***C kartazala (3): "Formulen bidez kuantifika daitezkeen irizpideen dokumentazioa".***

*Kartazal horretan, VI. eranskineko ereduen arabera betetako dokumentuak sartuko dira, eta honako hauek jasoko dira bertan:*

*- Eskaintza ekonomikoa, bakarra izango dena. Proposamen ekonomikoarekin batera, banandutako aurrekontua aurkeztuko da, unitateko prezioekin, gutxi gorabehera ezagutzea xede, kontratua prezio itxikoa delako. Gainera, fitxategi bat erantsiko da, ".xlsx" formatuan, egin beharreko lanen prezio unitarioekin. [...].*

Idazkariak adierazi du lizitatzaile batzuek ez dutela zuzendu aurrekontu banakatua eta/edo

2.- Conceder un plazo de 5 días naturales a las empresas que habían presentado ofertas económicas anormalmente bajas (Eseki, S.A.L., Energías Fotovoltaicas de Navarra, S.L. (FOTONA), Rios Renovables, S.L.U. y Ekilor Energías Renovables, S.L.) para que justificaran la viabilidad de su oferta conforme a lo establecido por el artículo 98 de la Ley Foral 2/2018, de Contratos Públicos.

Comenzando por el punto de las ofertas económicas anormalmente bajas, el secretario da cuenta de la justificación presentada por las 4 empresas y la Mesa la considera suficiente, basándose en el informe técnico emitido al respecto por Ainhoa Lanz Ortego (NAFARKOOP ENERGIA DE INICIATIVA SOCIAL E.KOOP.).

Respecto a la subsanación de los defectos formales, que en todos los casos afectan a la oferta económica, se procede a la lectura de lo que el pliego regulador establece al respecto:

***"Sobre C (3): "Documentación criterios cuantificables mediante fórmulas".***

*En este sobre se incluirán documentos cumplimentados conforme a los modelos que figuran en los Anexos VI, en el que se hará constar:*

*- La oferta económica, que será única. Junto a la propuesta económica, se presentará el presupuesto desglosado, con los precios unitarios, solo a efectos orientativos, debido a que el contrato es a precio cerrado. Se adjuntará además archivo en formato ".xlsx" con los precios unitarios de los trabajos a ejecutar.[...]".*

El secretario manifiesta que algunas licitadoras no han subsanado la falta de

SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2024/08/01

SINATZAILEA
Berako kontu-hartzailea
MARIA DOLORES OYARZABAL ZUBIETA
2024/08/01

SINATZAILEA
Berako Udaleko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2024/08/01

".xlsx" formatuko artxiboaren falta: Elecnor Servicios y Proyectos SAU, Energías Fotovoltaicas de Navarra SL (FOTONA), ASP Energía Solar Fotovoltaica 2021 SL eta Telman SL. Rios Renovables SLU enpresak ez du zuzendu sinatutako proposamen ekonomikoaren gabezia (VI.1 eranskina), ezta aurrekontu banakatuarena ere.

Gaia eztabaidatu ondoren, Mahaiak ondoko hau erabaki du:

1. Aurrekontu banakatua eta/edo ".xlsx" formatuko artxiboaren falta baliogabetzen ez duten akatsatzat hartzea; izan ere, pleguak berak ezartzen duen bezala, gutxi gorabeherako ondorioak baino ez ditu, kontratua prezio itxikoa delako, eta baloratu beharreko eskaintza ekonomikoa lizitatzailearen ordezkariak sinatutako VI.1 eranskinean jasotakoa delako. Ondorioz, sinatutako VI.1 eranskinaren bidez aurkeztutako eskaintza ekonomiko guztiak baloratuko dira, aurrekontu banakatua izan edo ez.

Argudio hori berresteko balio du baldintza-agiriak gauzatzeko epea murrizteko eskaintzak aurkezteko moduari buruz ezartzen duena, berariaz zigortzen baitu eskaintzarekin batera muntaketa-plan bat ez aurkeztea: "[...] Muntaketa-plan hori ez da baloratuko. Muntaketa-plana barne hartzen ez bada, ez da baloratuko lizitatzaileak eskainitako epea murrizteko aukera. [...] "

2. Sinatutako VI.1 eranskina aurkeztu ez izana baliogabetzeko akats gisa hartzea; izan ere, lizitatzaileak kontratua prezio zehatz batean gauzatzeko konpromiso formalik ez izatea dakar. Ondorioz, 0 puntu emango zaizkio sinatutako VI.1 eranskinaren falta zuzendu ez duen lizitatzailearen proposamenari: Rios Renovables SLU.

presupuesto desglosado y/o archivo en formato ".xlsx": Elecnor Servicios y Proyectos, S.A.U., Energías Fotovoltaicas de Navarra, S.L. (FOTONA), ASP Energía Solar Fotovoltaica 2021, S.L. y Telman, S.L. Rios Renovables, S.L.U. no ha subsanado la falta de proposición económica firmada (Anexo VI.1) ni presupuesto desglosado.

Debatido el asunto, la Mesa acuerda:

1.- Considerar la falta de presupuesto desglosado y/o archivo en formato ".xlsx", errores no invalidantes, ya que como el propio pliego establece, solo tiene efectos orientativos, debido a que el contrato es a precio cerrado, y la oferta económica a valorar es la contenida en el Anexo VI.1 firmado por la persona representante de la licitadora. En consecuencia, se valorarán todas las ofertas económicas presentadas mediante Anexo VI.1 firmado, contengan o no presupuesto desglosado.

Sirva para reafirmar este argumento lo que el pliego establece respecto a la forma de presentación de las ofertas de reducción del plazo de ejecución, que sí penaliza expresamente no acompañar a la oferta con un plan de montaje: *"[...] Ese plan de montaje no será objeto de valoración. En caso de que no se incluya el plan de montaje, no se valorará la posible reducción de plazo que haya ofertado la licitadora.[...]"*.

2.- Considerar la no presentación de Anexo VI.1 firmado como un error invalidante, ya que supone la falta de compromiso formal de la licitadora de ejecutar el contrato en un precio cierto y determinado. En consecuencia, se asignarán 0 puntos a la proposición de la licitadora que no ha subsanado la falta de Anexo VI.1 firmado: Rios Renovables, S.L.U.

Aipatutakoan oinarriturik, erabaki da udal kontu-hartzaileari eskatzea eskaintzak baloratzeko txostena egin dezan.

Lehendakariak bilera bukatutzat eman du 15:00etan.

En base a lo expuesto, se acuerda encargar a la interventora municipal la emisión de informe de valoración de las ofertas.

El presidente da por finalizada la reunión a las 15:00 horas.

DIGITALKI IZENPETUA/ FIRMADO DIGITALMENTE

SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2024/08/01

SINATZAILEA
Berako kontu-hartzailea
MARIA DOLORES OYARZABAL ZUBIETA
2024/08/01

SINATZAILEA
Berako Udaleko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2024/08/01